

Irakurtzeko ohiturak 1

Zure ohiturei buruz gogoeta egiteko, erantzun ondoren datozen galdera hauek. Ariketa honetan ez dago zuzeneko edo okerreko erantzunik, noski.

- **Zenbatean irakurtzen duzu?**

- Nik batzuetan irakurtzen dut; aldizkako irakurlea naiz.
- Nik ez dut inoiz irakurtzen, edo ia inoiz.
- Nik normalean irakurtzen dut; ohiko irakurlea naiz.

- **Euskaraz ala gaztelaniaz irakurtzen duzu?**

- Euskaraz irakurtzen dut, eta batzuetan gaztelaniaz ere bai.
- Euskaraz irakurtzen dut.
- Gaztelaniaz irakurtzen dut, eta batzuetan euskaraz ere bai.
- Gaztelaniaz irakurtzen dut.

- **Egunkariak irakurtzen dituzu? Euskaraz ala gaztelaniaz?**

- Batzuetan irakurtzen ditut egunkariak.
- Egunero edo ia egunero irakurtzen ditut egunkariak.
- Egunero irakurtzen ditut egunkariak.
- Ez dut inoiz edo ia inoiz egunkaririk irakurtzen.

- **Liburuak irakurtzen dituzu?**

- Ez dut inoiz edo ia inoiz libururik irakurtzen.
- Liburuak batzuetan irakurtzen ditut.
- Liburuak normalean irakurtzen ditut.

- **Komikiak irakurtzen dituzu?**

- Ez dut inoiz edo ia inoiz komikirik irakurtzen.
- Komikiak batzuetan irakurtzen ditut.
- Komikiak normalean irakurtzen ditut.

- **Aldizkariak irakurtzen dituzu?**

- Aldizkariak batzuetan irakurtzen ditut.
- Aldizkariak normalean irakurtzen ditut.
- Ez dut inoiz edo ia inoiz aldizkaririk irakurtzen.

Irakurtzeko ohiturak 2

Eredua

Aurreko ariketan zure irakurtzeko ohiturak aukeratu dituzu. Gogoan al dauzkazu? Datu horiekin egin hemen azalpen bat.

Eredu bat jarrita daukazu. Zure erantzunekin paralelo bat egin.

Nire irakurtzeko ohiturak asko aldatu dira denboran zehar. Gaztetan batez ere komikiak irakurtzen nituen. Horietaz gain, ikastolan irakasleek agintzen zizkiguten (dizkigute) liburuak irakurtzen genituen.

Eskola utzi ondoren, egunkaria erosten hasi nintzen eta hori izan da nire eguneroko irakurgaia urte hauetan. Egunkaria ia osorik irakurtzen dut, baina atzeko orrialdetik hasita.

Aldizkari gutxi irakurtzen dut. Batzuetan nire zaletasunen inguruko batzuk erosten ditut, baina oso gutxitan.

Liburuak ere irakurtzen ditut, urtean 10 inguru. Liburu hauek nobelak izaten dira. Gehienetan lagunen bidez lortzen ditut. Oraintxe euskaltegiko irakasleak agindu digun liburu erraz bat irakurtzen ari naiz.